

**HIZKUNTZ DISKURTSU SOZIAL BATEN
LEHENGAIAK
Kataluniatik zenbait adibide tematiko**

Joseba Intxausti

1. SARRERA-OHARRAK

1.1. Hizkuntz ohitura sozialen borondatezko edo bortxazko aldakuntzetan, momentuko anuo sozio-linguistikoei buruzko argitalpenak agertzea guztiz arrunta da. Literatura horrek egokiera historiko horietako gizarteak sentiberago bizi ohi dituen gatazkak aztertu edo astintzen ditu. Baina bibliografia hori ager dadin, baldintza sozio-kulturalek lagundu behar izaten dute: luma eskolatuak beharko dira (hau da, gizarteko gaitasun intelektualak), tresneria tekniko-soziala (inprimategiak, argitaletxeak, merkatu eratu...), eta idazketa eta argitalpenetarako askatasun sozio-politikoak, gutxienez, talde sozialek eta proiektu kontrajarriek kalera atera ahal izateko.

Aldakuntz une horietako hizkuntzari buruzko bibliografiak xede ezberdin eta kontrajarriak izan ditzake, noski. Hizkuntz aldakuntza eta trukakuntza laguntzeko nahiz oztopatzeko izan liteke, hura gidatu edo norabidez aldatzeko. Bestalde, bibliografia horrek, eskierki, garaikoen mito eta ideiak, eta gizarteko historia eta egiturak ipilatu ohi ditu.

Argitalpen hauekin, egoera berriaren ezartzailea, eta/edo aldakuntzak ukitzen duen hiztungoa, bere gogo eta pentsamenduari formulazio teoriko bat ematen saiatzen dira, prozesuari helburuak eta eginbideak definituz. Azken buruan, lan teoriko horren bidez, gidaritza ideologiko landu batez hornitzen da gizarteak onartutako proiektu sozio-linguistiko berria (edo berreskuragarria), edota agintariak nahiago luketen hizkuntz proposamen ezargarria. Ez da, beraz, harritzekoa aldakuntz proiektuak kontrajarritan ageri diren une horietako bibliografia hau, bere baieztapen eta edukinetan neutraltasun zientifiko handirik gabe agertzea. Ondorioz, ez da falta izaten desbiderazio zientifikorik zientzia modernoan aurreko edo ondoko literatura horretan.

Besteak beste, bi balio bederen azpimarra litezke honelako eztabaida-bibliografietan: 1) Lehenik, nabari zaizkion jakin-mina eta azter-gogoak. 2) Eta bigarren, garaian garaiko eta gizarte jakin bateko ideologia sozial eta sozio-linguistikoak ezagutzeko duen iturri-balioa.

1.2. Lan honetako bilketa-lana, batez ere bigarren ikuspide honetatik begiraturaz egiten dugu. Esan bezala, aurreko mendeetan eta gizarte ezberdine-

tan, aldakuntza linguistikoetarako proposamen sozio-politikoak egikaritu nahi izan direnetan, eztabaida aberatsak ezagutu dira: Ernazimentuko humanisten artean, edo Antzinateko Grezia-Erromen topaketa kultur-linguistikoa, eta, zerbait hurbilagorik nahi balitz, Eliza Katolikoan Vatikanoko II.aren inguruko hizkuntz erreformarekin, edo herri deskolonizatueta (Algeria, Indonesia) sortutako bibliografia gogoratu besterik ez dago. Eta, altuera txikarrekoa izan arren, gure “h”aren inguruko eztabaida ez da adibide txarra, aldakuntzarik txikiena ere eztabaidarako nolako arrazoi edo aitzakia izan litekeen ikusteko.

Aldakuntz proiektuak, gizarte batean, alkantzu orohartzailea duenean, ordea (hau da, hizkuntza bat, osorik, beste batekin parekatu edo trukatu nahi denean), tamaina, kalitate eta ondorio handiko “diskurtsu” soziala gara liteke hizkuntzari buruz, aipatu ditugun baldintza sozialek laguntzen badute bederen.

1.3. Azkeneko hamarkadan Penintsula Iberiarrean proposamen sozio-linguistiko berriak ezagutu dira, eta, aldakuntzei aurre eginez, arazoari buruz diskurtsu sozial ezberdinak garatu ere bai, hizkuntz komunitate eta ideologia ezberdinetatik. Gurean ere, euskararen inguruan, egin da azterketa eta gogoe-tarik, eta, beharbada, diskurtsu sobera landua, koherentea eta sozialki aski zabaldua ez bada ere, mereziko luke horrek azterlan on bat.

Oraingoan eta hemen, nere asmoa besterik da: analisi sakonagotara pasatu, gabe, Katalunian bizirik dagoen diskurtsu sozio-linguistikoaz apunte informatibo batzuk eskaintzea, alegia. Aldeak eta diferentziak ahazteke, katalanaren berreskurapen soziala eta beronekin doan diskurtsu teoriko soziala euskararen aurretik doazenez, egon liteke guretzat han zer ikusi eta, agian, zer ikasi. Uste horrekin biltzen dira ondoko argibide hauek.

2. KATALANAREN HISTORIOGRAFIAZ

2.1. Europan, azken hiruzpalau mendeetan minorizatuak izan diren, edo ofizialtasun estataletatik saihestuta geratutako hizkuntzen artean katalanak historia jakingarria du, Erdi Arotik XX. mendea arte bizi izan dituen egoera hain ezberdin eta aldakorrengeatik.

Ezberdinak, diogu, lehenik, suertatu zaizkion ofizialtasun-egoerak edo uka-zioak mendeen harian guztiz aldatuak gertatu zaizkiolako. Erabilera ofizial osoa ezagutu zuen hizkuntzak Herrialde Katalanetan, beti ere Berant Erdi Aroa arte Europako Mendebaldean latinari egin ohi zitzaion lekua ukatu gabe (Coromines 1976 27-28). Horregatik, bere adiera etno-kulturalen ezezik esanahi historiko-instituzionalen ere, katalana “hizkuntza nazionala” dela esango du historiografia katalantzaleak.

Betidanik irabazitako egoera hori XV-XVII.etan kultur arlo jasoetan hasi zen zerbait aldatzen, Trastamara eta Austriarrekin; baina XVIII. mendea izan zen aldakuntza, modu bortxatu eta traumatiko batean, ezarri zuena. Eta ez erresistentziarik gabe.

Hurrengo mendean, ordea, Erromantismoak —Argiztatu batzuen ildoaz zabalduz— kontzientzi berritze sozio-linguistikoa ekarri zuen (Ferrer 1985, Hina 1985 passim). Une aparta, berriz ere, hizkuntzaren inguruko gogoeta indarberriturik eta/edo hobegorik lantzeko. Hogeigarren mendean hizkuntzaren praxi politiko-instituzionalaren aldi berria ezagutu du katalanak (Rossell 1977 pas-

sim). Ahalegin sozial praktiko hauen inguruan ere bibliografiak eta pentsamendu linguistikoak ekarri ugaria eskaini du (Badia 1976, *passim*).

2.2. Komunitate linguistiko honek, halako ziklo historiko hain konplexuan, belaunaldiz belaunaldi, bere hizkuntzaz ukan duen gogoeta historiko-sozialak aberastasun esanahitsua izan du (Intxausti 1978). Lantxo honek, inondik ere historia luze horren sintesi oso bat izan nahi ez duenez, aski izango da hemen panoramika orokorrago baterako hiruzpalau ohar bibliografiko ematea, besterik gabe, honako hautatu dugun barrutira berehala pasatzeko asmoz. Zilegi bekigu atariko gisa, katalanaren historiaz diharduen bibliografia arruntena gogoratzea, eta berezikiago berorretan ageri diren argibide sozialak azpimarratzea.

2.2.1. Katalanari buruzko lan historiko-linguistikoek badituzte beren sintesi “klasikoak” (Badia 1981, Sanchis Guarner 1980) eta berrikitan sona handia irabazi duen bat (Nadal/Prats 1982) laburbidezkoen bat ahantzi gabe (Duarte/Massip 1981). Berauetan, batez ere hizkuntzaren barne-historia eskaintzen zaigu, baina han-hemenka bil liteke, gainera, kanpo-historiarik ere. Sanchis Guarner-ek, adibidez, ez ditu ahanzten alde sozialak: erret Gantzileria eta burgesiaren eragina, hizkuntzaren lurraldetasun historikoa, Gorteen mezenazgoak, etab. (Sanchis Guarner 1980 162, 171 eta 231, 179 eta 183, 211). Badia-k barne-deskribapen historikoa hartzen du aintzakotzat ia bakarrik, hizkuntzaren geografia historikoari eta demografiari ere begiratu bat eman arren (Badia 1981 37-48).

Baina hizkuntzaren sintesi historiko aipatuetatik, alde soziala gehien zaindu duena Nadal/Prats-en lana da, zalantzarik gabe: erromatarraurreko substratuaz, hizkuntzarteko harreman sozio-historikoez (476-865 urteetan), lurraldezabalkuntzaz eta hizkuntz betekizun sozialaz (785-1162, 1162-1276), hizkuntza idatziaz eta literarioaz eta Mediterraneoko hedapenez (1276-1336) esaten direnak, orrialde luze eta aberatsak alegia, hizkuntzaren kanpo-historiaz ari dira (Nadal/Prats 1982 *passim*). Tamalez, obra honen ondoko segida falta zaigu (agian 1989an kaleratuko dena). Bestalde, Nadal/Prats-en ondoan, obra laburragoetan ere badago inoiz historia sozialerako albisterik: ik. Duarte/Massip, adibidez.

Oinarrizko obra hauetan, ordea, sobera eskasak dira oraindik hizkuntzarekiko kontzientzia, mentalitate eta ideologiez ematen dena. Riquer/Comas-en obra (Riquer/Comas: 1984-1987etako tomo-edizio ezberdinak) hartu beharko litzateke, zuzenean hizkuntzaz ez, baizik Literaturaz ari bada ere: adibidez, Comas-ek XVIII.eko hizkuntz egoeraz dioena biziki interesgarria da garaiko katalanen hizkuntz mentalitatea ezagutzeko. Hizkuntz historietara itzuliz, berriz ere Nadal/Prats izango litzateke aberatsena: latinaren aurrean lortutako autonomiaz, Lull-en hizkuntz hautapenaren kontzientziatzaz edo hartaz zuen pentsamenduaz, Muntaner-en “abertzaletasun linguistikoaz” (1265-1336), edo kultur itzulpen ugariak (1360-1412) ematen diren argibideak adibide onak dira esaten duguna argitzeko (Nadal/Prats 1982 149, 202, 320, 359, 432).

2.2.2. Eta aztergaiari beste ikuspide bat bilatuz, gatozen hizkuntzaren historiarrietatik historia orokorretan hizkuntzaz esaten direnetara. Azken urteotako bi obra nagusi dira hemen nahitaez aipatu beharko liratekeenak: Albert Balcells-ek gidatu duena, eta dagoeneko gure egunetararte ekarria (Balcells 1980) eta bigarren sintesi handia, Pierre Vilar zuzendaritzat duena (Vilar 1987).

Balcells-enean hizkuntzarekiko hainbat argibide aurki liteke, beti ere historiografia orokor hauetan ohi denez, unean uneari dagokion testuinguru orokorra lagun duela. Horregatik, obra baliagarria izan daiteke katalanaren kanpo-historia testuinguruan lekutzeko. Vilar-ek eta Termes-ek gidatu eta koordinatzen duten horretan, aldiz, badirudi ez dela hizkuntzarena hainbeste zainduko (baina ikusteko dago hori, zeren zazpi-zortzi liburukitak hiru bakarrik baitira oraindik kalean: I, III, VI). Eta ez da hori axolagabekeria gertatuko, egin den ikuspegi-hautapena horrelaxe egin delako baizik, hizkuntzarena obra berezituagoetarako utziz.

Dena den, katalanaren historia sozio-linguistikoa bizirik dago gizarte katalanean, eta are biziago komunikabideetan, eta oroimen hori eta katalangoaren etorkizun-kezka, intelektualen artean eta komunikabideetan, hizkuntzaz diharduen diskurtso soziala lantzen ari dira, katalanen hizkuntz kontzientzia eta mentalitatea eguneratuz. Normalizazio-prozesuan bere lekua du.

Gertatzen ari denaren ikuskari batzuk bildu dira hemen. Lehenik, irakurlego arruntari zuzenduriko prentsa eta politika-lana gogoratzen dugu; gero, kultur aldizkari ongi zabaldu batean ikus daitekeenaren berria dakargu.

3. PRENTSAN ETA POLITIKAN BI KASU ARGIGARRI (1976-1988)

Prentsa katalanaren bizitza oso aberatsa izan zen gerrateurrean, Errepublikan eta Gerratean alegia. Handik hona, isilaldi luzearen ondoren, Franco-ondotik birjaio da ostera, orduan izandako indar erlatiborik oraindik lortu ez badu ere. Prentsa idatzi horren barnean, lanik latzena, eta emankorra, egunkariena izan da: *Avui*, *Punt Diari*, etab. *Avui-ren* kasua aipatu nahi nuke hemen, eguneroko prentsaren barnean azken hamarkadan izan duen pisu bereziagatik.

Bizitza publikoarekin hari zuzena duen praxi politiko-linguistiko sustagarri bat dakargu, gainera: Francesc Ferrer i Gironés-en kasua. *Curriculum* politiko berezi batean, hizkuntz politika erreibindikatiboari leial izan zaio, eta aldi berean ikerlan intelektual bat burutu du senadore honek.

3.1. *Avui* egunkariak bizitza laburra du oraindik: 1976ko apirilaren 23an atera zen kalera, 20.000 akziodunen kapitalarekin. Egunkariaren sustatzaileak, nagusienak bederen, Convergència-ren ingurukoak izan ziren. Geroztik, hobe-kuntza eta berritzeak izan ondoren, badirudi finkatu dela egunkaria, eta kazetari eta lankideetan badagoela, inoiz sumatu izan zaion baino aniztasun ideologiko irekiagorik.

Avui-k arretarik erneenarekin begiratzen ditu Herrialde Katalanetako azalpen kulturalak, eta talde guztiek, seguraski, sarbide bera ez badute ere, bere orrialdeetan entzuten diren ahotsak nahikoa ezberdinak eta kontrajarriak gertatzen dira. Gainerako arazoetan bezalatsu, hizkuntzarekikoan ere bai.

Avui-ren diskurtso sozio-linguistikoa garrantzikoa da Katalunian, eta Estatu osoko hitzungeontzat eredu irakurgarria izan liteke. Hizkuntz gogoeta honetan topa ditzakegun balio koalitatiboen ondoan, azpimarratzekoa da egunkariak kaleratu dituen lanen kopurua: bere osoan eta egunkariaren barneko portzentzia erlatiboan testu-masa hori ez-ohizkoa da, inondik ere. Gogoan har bedi,

gainera, informazio orokorreko albistari bat dela *Avui*, eta ez aldizkari berezitu bat.

Dagoeneko, 1976tik 1988raino, bildu ahal izan ditugun gisa guztietako lanak 10.000tik gora dira. Kopuru harrigarri horren barnean, iturri eta molde askotakoak aurki litezke: egunkariaren editorialak, eritzizko idazlanak, eztabaidak, lan teknikoak, artikulu berriemaileak, gutunak, iragarkiak eta abar. Kalitatez eta tamainaz mundu oso bat da, balio eta esanahi ugariakoa. Oro har, zera esatera ausartuko nintzateke: Estatu espainolean ez dago beste honelako kasurik, eta gaur eguneko European bai ote dagoen nere zalantzak ditut.

Katalanaren neurritako herri batean, hizkuntzaz era honetan eta etengabe-ki ari den honelako egunkariak munta handia izan dezake: herri horren barneko hizkuntzazaleen kolektiboa ia osorik har dezakeelako, eta berorik, modu iraunkor batean, erreziklaia eta eguneratze ideologiko bat ematen diolako. *Avui-k* itxuraz, ez du katalantzaleen kolektibo osoa erabat hartzen, baina bai gehiena eta agian sozio-dinamizatzaileena. Talde handien honek zer dioen, zer irakurtzen duen, zein pentsamendu eta sentierak darabiltzan jakiteak badu interesik, batez ere normalizazio-prozesuetan gogoeta soziolinguistikoak, eta kasu honetan kazetaritzak zabaltzen duenak izan lezakeen leku praktikoteko-erikoa ezagutzeko.

Hemen, gogoratu baizik ez dugu egiten *Avui-ren* historia hau. Zalantzarik gabe, badago jada egunkariaren informazio eta pentsamendu linguistikoaz aztertzen ari den ikertzailerik.

3.2. Egunkari baten barnean eta inguruan hizkuntzaren alde edo kontra egindakoa lankidego zabal eta ireki baten lana da; baina hizkuntzaren aldeko erresistentzian eta normalizazioan, intelektual eta politikari jakin bati egotzi behar zaizkion ikerketa teorikoa eta ekinbide politikoa ere ezagunak dira Katalunian: *Francesc Ferrer i Gironès* (Girona, 1935) senatorearen historia da.

3.2.1. Hizkuntzaren diskurtsu soziala ontzeko, hiruzpalau liburu eman ditu argitara Ferrer i Gironès-ek (1982, 1985, 1986). Denak izan dira oihartzun handikoak, eta edizioak ugari eta azkar agortu dira: *La persecució política de la llengua catalana* da kasurik nabarmenena.

Ferrer i Gironès-en biografia intelektual eta politikoa nahikoa bitxia izan da. 1958tik aurrera klandestinitatean ihardun zuen, lan politikoa eta kulturalak bultzatuz: liburudenda bat (1963) “*Català a l'Escola*” kanpaina (1966), literatur sari bat (1967) eta *Omnium Cultural* (Girona) elkartearen lehendakaritza (1972) izan ziren frankismoaren kontrako erresistentzia kulturalen gidatu zituen ekin-tzetatik batzuk. Arlo politikoan ere presente egon zen, berehala: mugimendu katoliko sozialetan lehenik (1958), *Asanblada Demokratikoan* (1975), hizkuntz kanpaina politikoa eta instituzionaletan (*Marxa de la Llibertat* eta “*Volem l'Estatu*” hartan, 1976). Hurrengo pausoa, frankismo-ondoko lanetan parte hartzea izan du: “*Entesa dels Catalans*” taldean senatore bilakatu zen (1977), eta ondorengo hauteskundeetan PSCren zerrendetan independente bezala joan da (1979, 1982, 1986). Senatore bezala, hizkuntz politikaren arloan ahalegindu da batez ere, eta berau izan da honetan, barruti legegilean, lanik sistematikoena egin duena.

Azken urte hauetan, Ferrer i Gironès-en lanak interesgarriak gertatzen dira, informazio teoriko-historikoak eta eguneroko politika elkarrizlagunduz eraman nahi izan dituelako ere: politikariarena bete du, eta ikerlana ez du utzi.

Prentsa bidez egin du bere ideia-zabalkundea (Ferrer i Gironès 1982, 1984, 1985a, 1985b, 1985c, 1986a), eta, esan bezala, libururik ere argitara eman du. Horiek horrela, katalanaren pertsegizioaz diharduena da hemen gehienbat interesatzen zaiguna, berezitasun sozio-kultural eta politiko nabariak baititu Espainian azken urteetan ezagutu den bibliografiaren barnean.

Estatuan badira azken hamarkadetan, hizkuntzen arteko gatazkak (Tovar 1968), ezinegonak (Marías 1966, Serrahima 1967) eta pertsegizio politikoak (Benet 1973, Guardiola 1980, Torrealdaí 1982) ikertu dituztenak; baina hizkuntza jakin baten pertsegizioaren historia juridiko-administratibo eta politiko oso bat egiteke zegoen. Ferrer i Gironès-ek egin du lehenengoz historia hori, katalanarena aipatu liburuan ematean (Ferrer i Gironès 1985).

Herrialde Katalanak borbondarren menpean erori zirenetik gaurdaino (Rosselló 1659, Valencia 1707, Katalunia 1714, Balearak 1715), haien hizkuntzak jasan izan duen patu gaiztoaren egunez eguneko historia da liburu hau. Konkista diplomatiko (1659) edo armatuaren (1714-15) ondoren, legezko pertsegizio politiko eta etorri zitzaion hizkuntzari, Pirinioez iparralderantz bezala hegoalderantz, lehenengo frantsesari eta ondoren gaztelaniari lagunduz, eta geroago katalanari berari hegoak moztuz (Rosselló 1672 eta 1700, Valencia 1707, Balearak, eta Katalunia 1716). Hizkuntzaren pertsegizioa, hortaz, gertakari politiko baten ondorio politiko da.

La persecució política liburuak, botereak katalanarekiko hartutako erabaki politiko guztien bilduma kronologikoa izan nahi du; agiri, lege, erabaki eta bestelako, beren testuinguruez hornituta ageri dira, bilduma soil batek izango ez lukeen irakurgarritasunez jantzita, alegia. Historia honi bere bizkarrezur kronologikoa ere ematen zaio liburu-gaia egituratzean bertan, eta bigarren eranskinean eratu den “Cronologia documental”ean. Legezko pertsegizioaren hastapenak (1650-1760), Estatu “argiztatu”aren historia (1760-1808), Iraultza burgesaren hizkuntz politika (1808-1874), Errestaurazio monarkikoa (1875-1900), borroka abertzale katalana (1901-1923) eta Diktadura (1923-1931), Bigarren Errepublikaren aukera (1931-1939), Frankismopeko zapalkuntza eta erresistentzia (1939-1975) eta azken hamarkada: dena dago ispilatuta liburuaren 316 orrialdeetan.

Duen informazio zabalagatik (batzutan ez katalanari bakarrik dagokiona) eta balio eredurik ere baduelako, liburu oso argigarria gertatzen zaio irakurleari, izan ere ez baita ohizkoa honelako argibide historiko-politikoak, denak batera aurkitzea. Horrela ulertu zuen irakurleko katalanak, eta sei hilabetetan lau edizio egin behar izan dira.

C. Duarte-k idatzi duen bezala, “el llibre és una eina per al descobriment d’una implacable i constant persecució de la llengua catalana i per al referment de la consciencia lingüística dels catalans” (ik. *Rev. de Llengua i Dret*, 7, 1986, 290-292).

3.2.2. Ferrer i Gironès-en hizkuntzaren borroka ez da historiako argiak ekartzearekin bukatu. Politikari bezala, orainaz eta geroaz arduratu behar izan du, eta hizkuntz politikaren alor honixe heldu dio, kasik bere barruti berezi bezala heldu ere. Horretarako lehen tresna, prentsa izan du, noski; gero, liburuaren bat ere bai (Ferrer i Gironès 1982); baina, pentsa daitekeenez, Senatutik lan egin du, katalanaren normalizazioari esparru berriak irekitzeko asmoarekin. Pertsegizioaren historia idaztean, gainera, ez du autoreak liburuaren asmo politikoak ukatu akademikotasunaren itxurazko neutraltasunak jantziz

Estatuko erakundeetan lortu behar den normalizazioa izan da Ferrer i Gironès-en ardurarik ezagunena. 1984eko udazkenean (Ferrer i Gironès 1984, 1985b, 1985c), adibidez, koartelotako eta armadako katalanaren erabilera-arazoa izan zen Prentsara, Ministraritzara eta Senatura eraman zuen aztergaia; ez zuen bide zuzenik aurkitu: eztabaidak, emendakinak eta isilpeko hitzarmenak ibili ziren azpitik, alderdien arteko lehiaketak ere tarteko zirela (Sanmartí 1985, J.P.M. 1985, Burguera 1985, Redacció 1985a, 1985b, Avui 1985, Crexell 1985, Sendra i Navarro 1985, Torres i Almirall 1985), Poliziarekiko hiritarren harremanetan ere hizkuntz eskubideak lege bidez babestu nahi izan zituen (86-otsaila-12/13).

Saiatu da Ferrer i Gironès, zegokion barruti instituzionalean normalizazioari alor berriak legez babesten: bankuetako paperketan, osasun-munduan, etab. Baina argi eduki du, edo ikusi du, legezko egoeratik errealitatera dagoen alde: “Legeak gaur egun dioenaren eta hizkuntz errealitate soziologikoaren artean dagoen alde hain handia da, ze botere politikoak ez dira aski hori konpontzeko” (Ferrer i Gironès 1986 [20-IV]).

Senatore sozialista honen historia politiko-instituzionalak badu berezitasunik franko: ez da agintean egon; parlamentutik lan egin, baina eritzi publikoaren laguntza bilatu du, bere artikulua eta ikerlanekin berori ere lantzen ahal egintzen zen bitartean; ez du alderdi bateko karnetik izan, eta, dirudienez, PSCko programa-estrategietatik nahikoa urrun ibili da, beti ere hautatutako alor honetan bere egitasmo eta jokabidea aparte zainduz. Iraupen luzeko ahalegina izan da hau dena, hamahiru urtetan izan baita senatore. Une honetan ez jakin lan politiko honek segida onik izango duen (Vendrell 1988).

4. REVISTA DE CATALUNA (1986-1988)

Kazetaritza orokorrean, parlamentuan edo ikerlanean eta liburutan kalera-tu den diskurtsuaren ondoan, ikustekoa da kultur aldizkari zabalduenen batean topa litekeena: *Revista de Catalunya* aipatu nahi nuke hemen. *Revista de Catalunya* ez da sozio-linguistikako edo filologiako aldizkaria, kultura katalanaz orokorki arduratuari zuzentzen zaion disziplinateko hilerokoa baizik. Badu antzik gure oraingo RIEV/RIEB-ekin; baina alde zurretik programatuagoa ageri dela esan liteke.

Filologian, mundu akademikotik at ere iritsi nahirik, jaio-berriak dira, esate baterako, *Caplletra* Valencia-n, IECen *Llengua i Literatura*, eta *Limít* Barcelonako Unibersitate Autonomoan. Hauek hizkuntzari zuzenean heltzen diote, horretarakoxe asmatuak direlako, baina zabalkundez mugatuagoak dira eta beren pentsamendua espezialisten artera doa bereziki. *Revista de Catalunya-ren* diskurtsu glotohistorikoa eta sozio-linguistikoa muga zabalagoko gizarte batera doa; horregatik, aldizkari honetako mezuaren oihartzun sozialak bestelako eragina izan lezake, eta, hortaz, hemen guretzat interes handiagoa izan.

4.1. *Revista de Catalunya* historia luzea eta malkartsua izan du. 1924-1938 urteetan izan zuen bere lehenengo argitaraldi historikoa, eta ondoko erbestealdian, 1940-1966, hutsarte handiekin eutsi zion lanari. Luma klasikoak izan zituen bere orrialdeetan: Rovira i Virgili eta Soldevila historilariak, J. V. Foix poeta, etab. 3.000 bat aleko edizioak zituen, eta mende honetako aldizkaririk

sonatuena izatera iritsi zen. Bere kritika-saiakera, eta sorkuntz lanetan, liberal-
ezkertiar bezala definitu izan da garai hartako aldizkariaren lana. Orduko
“intelligentsia” gehienak hartu zuen parte: Bertrana, Pla, Bosch-Gimpera, Riba,
Carner, etab. Erbestean, argitalpen-lekuz behin eta berriz aldatu zen: Parise
(1940), Mexiko (1943), Parise (1947) São Paulo (1956) eta Mexiko (1967),
baina orotara hamahiru zenbaki baizik ez zituen atera.

Orain, berrikitan (1986), ostera heldu dio lanari, bere hilerokotasunari
eutsiz. Gidaritza Max Cahner-ek hartu du, Kultur Kontseilari-ohiak alegia.
Zuzendaritzaren inguruko staff-ean nabaria da arduradunek gaur eguneko Generalitatearekin duten hurbiltasuna. Hala ere, lankidegoan aniztasun politiko eta ideologiko batekin doala ikusten da, orain arte aztertu ahal izan ditugun lehen hamazazpi zenbakietan.

4.2. Mantentzen duen hilerokotasun zainduagatik, gaien ugaritasunagatik eta hauetan ikusten zaion gaurkotasunagatik, segurtaturik dauka bere zabal-kundea. Kataluniako kultur aldizkarietan berriro ere hartu du lehentasuna, baina, ohar hauetan gehien ardura zaigunari begiraturaz, hizkuntzarekiko lan-“corpus” oparoa bildu da *Revista de Catalunya*ren orrialdeetan.

Ale bakoitza, editorial gisako baina sinatuta doan “Editorial” batekin hasten da. Beti ere, gai edo gertakari hautatu baten inguruan ahots seinalatua den norbait deitzen da atariko horretarako. Dagoeneko, lehen orrialde horietan luma hartu dutenak, Herrialde Katalanetako izen ezagunak dira: M. Cahner, Tapiés, Coll i Alentorn, R. Lapiedra, J. Molas, Folch i Guillèn, E. Casassas, M.-A. Vila, M. Tarradell, etab. Editorialaren ondoren sail finkoak datoz: “Raonaments” (Arrazoiketak), “Realitats”, “Mirador”, “Revista de les Arts”, “Revista dels Llibres”. Aldizkari barruti ezberdin hauetan banatu dira hizkuntz arazoari eskaini zaizkion lan eta orrialdeak. Bibliografian bildu dugun lan-zerrendak begiratu batean erakusten du lan hauen kopurua zenbatekoa izan den.

4.3. Hizkuntzarekiko sailkapena lau puntutan eman dezakegu: Hizkuntza, denbora-espaziotan aztertu da (historia, lurraldetasuna); hizkuntz kontzientzia, ideologia eta pentsamendua izango litzateke “corpus” literario horren bigarren barrutia; hizkuntz(ar)en normalizazio-arazoak eta hiztunen ahalegin kulturalen definizio, deskribapen eta kritikak osatzen dituzten lan-sailkapenaren hirugarren eta laugarren kapituluak.

4.3.1. Herrialde Katalanetan hizkuntzaren historiaz eta hizkuntz batasunaz ardura eta eztabaida nahikoa gordinak eta politikoak izan dira, azken hamarkadan. Historiaz, hizkuntzaren barne-historiatik at ere, historiografi molde berria jaiotzen ari da (1986ko “Hizkuntza Katalanaren Nazioarteko II. Kongresua” lekuko); eta, alde horretatik, oraindik aurrez ikusiezineko ondorioak izan ditzakeen kontzientzi argitze bat ari da gertatzen. Hala dirudi, bederen. Lurraldetasunari bagagozkio, ostera, katalanaren langileak (pentsalari, idazle, sozio-linguista eta, heinen batean, politikariak ere) komunitate linguistiko bakarrekiko direlako sentimendua geroz eta finkatuagoa dute. *Revista de Catalunya* hurbiletik segitzen du, bere orrialdeetan, errealtatea gauzatzen ari den batasun-paradigma eta askoren desideratum-a.

Historiaz aurkeztu diren lanetan, hiztunago katalanaren Historiaurreak edo Historiak sarritan izan dute beren lekua, inoiz datu eta argibide bitxiak jasoz, gainera: tribu iberiarren latinizazioaz edo bisigotuen esanahi linguistiko historikoaz (Mundó 1986 38, 39), arabiarrek lurralde katalanetara ekarri zuten arabizazioaz (Epalza 1987 54-56), edo Rosselló-ren frantsesestearen eztabaida historio-

grafikoa (Marcet 1987). Honen parean eman da zerbait Printzerriaren gaztelaniatze instituzionalaz ere: "Gotzainak eta XIX-XX. mendeetako Kataluniaren gaztelaniatzea" darama izenburutzat lan batek (Peschen 1987a). Erakunde-arazoetatik sakonagoetara iraganez, demografiaren historiari ere ematen zaio hiztunagoaz hitz egiteko aukerarik, migrazioek sor ditzaketen baldintza sozio-linguistiko eta kultural berrien dinamikaz (Solé 1987).

Iragan mendei edo gaurko hizkuntz aldakortasunari begira eskainitako ondoan, aldizkariak, era askotan, zeharbidez nahiz zuzenean, hitz egin du hiztunagoaren lurraldeez eta berrietan barreiatuta egiten ari den kultura idatziaz, edo funtzio-normalizazioaz. Azpimarratzekoa da, nola geografoen eskutik ere hizkuntza behin eta berriz agertzen den: hizkuntzak ere geografia egiten du, Pais Valencia-n, adibidez (Rosselló 1987 43, 45, 49-50). Arreta ohartua sumatzen da, Kataluniatik bertatik kanpo, beste Herrialdeetan hazten ari den literatura eta lan kultural katalanaz, Valencia izango litzateke aldizkariaren orrialdeetan gehien zaindu den esparru geografikoa. Lankide eta ikusmoldetan egin diren hautapenek ez dute "neutraltasunik" gorde nahi izan, azken uneko Fuster/Mira-ren artekoan kontuzago ibili baldin badira ere. Valènciako Idazle-Kongresua (1937), nobela valenciarra, Fuster-en eragin literarioa, tradizio/abangoardia literarioak izan dira Valènciaz ageri zaizkigun gaiak (Blasco 1987, Iborra 1986, 1988, Mira 1987, Oleza 1987, Simbor 1987).

Bete Herrialde Katalanez laburrago mintzatu bada ere, azpimarra ditzagun Balear eta Alguer-i buruzkoak: irla haietako literatur historiaren sintesi bat daukagu (Mas i Vives 1986), hizkuntzaren erakundetzapen soziala (Obra Cultural Balear Elkargoaren historia) ahantzi gabe (Llompert 1988), eta. Alguer hirian beharko den katalan estandarrari Sardiniako hiri horretan sortzen zaizkion arazo hain bereziei dossier bat eskaintzen zaie (Tavani 1988).

Hizkuntzaren lurraldetasun zentzua begiratu baldin bada, era berean begiratu da katalanaren erbesteko proiektzioa, atzerriko Unibertsitate eta Kongresuetan ematen zaion lekuaz eta noizbehinkako gertakariez berri emanez. Estatu Batuak eta Alemania izan dira izendatuenak, eta katalanaren Departamentuak eta egin diren itzulpenen berriemateak zaindu dira batipat: Estatu Batuetakoaz nota laburretan egin da hori (Duran 1987b, Rosenthal 1986, Roy 1988), baina Til Stegmann alemanak, katalana ikuspide orokor batean lekutzat idazten duen saiakera, aberatsagoa eta guretzat hurbilagoa da: "Kultura edo hizkuntza baten erakarmen-mailak" (Stegmann 1987).

4.3.2. Hizkuntzaren presentzia historiko eta geografikoarekin batera, katalanaren eta, oro har, hizkuntzarekiko mentalitate, pentsamolde eta ideologiaz ere hitz egin da *Revista de Catalunya* honen orrialdeetan. Hizkuntzaren eta naziotasunaren arteko zerikusi historiko-soziala da aldizkarian nabari den arazo teoriko-ideologikoetako bat.

Ikuspuntu ezberdinetatik begiratu zaio eztabaidagai honi: hizkuntz eta nazio-kontzientzia lekuko historiaren barnean kokatuz eta, zehazkiago, Reus-eko historian begiratzat (Anguera 1987 32-34) edo, historiografia abertzalearen barnean, arazoa Rovira i Virgili-ren lanetan miatuz (Carod-Rovira 1987 80-81), edo nahiago bada hizkuntza-nazioen zerikusia literatur munduko testuinguruan aztertuz (Lluch 1987) eta aldizkariaren kanpotik ere bazetorren eztabaida luzatzat (Canal/Casacuberta 1987, Sola i Camps 1987, Coromines 1987).

Arazaari egiten zaizkion unean uneko ohar horien ondoan, abertzaletasun linguistikoaren puntu honek, baditu hemen bi barruti etorkizunerako garrantzi-

tsuagoak: Valencia-ri dagokiona, eta demografia katalanari buruzkoa. Hizkuntzazazioen geroa egituratzeko ezin ahantziak biak. Bata, Mira-ren eskutik ageri zaigu orrialde haueta (*De impura natione-ren* autoreetako bat: Valencia, 1986) Joan Fuster-ek, 60etan, País Valencià-ren nortasun nazionalari buruz egindako azalpen teorikoa zalantzan jarri eta kritikatu. Azken bi urte hauetan guztiz bizia eta liskartsua izan den eztabaida da hau, Valencia-n ezezik Herrialde Katalanetan ere (Mira 1987). Bigarrena, migrazio eta hizkuntza(k) nazioan nola gorpuztu galdetzen duen puntua, soziologoaren eskutik dator, eta hor Kataluniak XX. mendean duen herronka historiko ezagun hori aztertzen da (Solé 1987).

Baina, gure artean behin baino gehiagotan egin denaren antzera, aldizkari honen lanetan ere, katalantasun linguistikoa ez da bere baitandik bakarrik begiratzen: kanpoko ereduaren gain oin-hartuz pentsatu-premia sentitzen dute autoreek. Bizpahiru motatako erreferentziak aurki litezke *Revista de Catalunya-n*: kultura eta hizkuntza nazional-estatal finkatuena (Txina, Suedia), Estatuagabeko herri txikiago indarberriena (Flandes, Québec), edo etorkizuna larriagoa ageri duten batzuen (Jura, Okzitania). Edozein kasutan ere, sintesi interesgarriak dira hauek, gerraurrean, Katalunian Rovira i Virgili-k edo Euskal Herrian Aitzolek edo Altzok eta geroago *Euskararen liburu zuria-k* berak egindakoaren gisa berean (Folch 1988, Ellegård 1987, Nijs 1987). Herri minorizatueta, munduko beste mugimendu abertzale ereduaren beharra sarritan somatu da, baita Katalunian ere (Culla 1986); berrikitan, arrazoi askorengatik Québec agertu izan da gogakizun argigarri bezala (Plourde 1987 78-79).

Kanpoko deskribapen sozio-historiko hauen ondoan, gogoetarako eredu teorikoen premia ere sentitu da, eta tresneria teoriko hori bilduz zientzietako kanpoko informazio orokorrak eta zientzien sintesi berriak eman dira aldizkariari; baina hemen linguistikari buruzko albiste berrigarriak interesatzen zaizkigu bereziki: Badia-k linguistika, zientziaren eboluzio orokorraren barnean lekutzen du (Badia i Margarit 1987), eta inoiz aztergai puntualagotara begiratzen da (hizkuntzaren entropiaz, adibidez: Wagensberg 1986).

4.3.3. Hizkuntzaren iraganarekin eta lurraldearekin batera, mentalitateen eta zientziaren berri eman ondoren, hizkuntza katalanaren etorkizun-kezka topatzen da aldizkariaren orrialdeetan. Kanpoko ereduak ekartzean ere gogoratu ohi da hizkuntzen gero problematikoko hori (suediera ingelesari kontrajarriz hitz egitean, adibidez: Ellegård 1987); baina hemen batez ere katalanaren beraren geroaz diharduten lanak gogoratu nahi ditut. Normalizazio eta estandarizazioari dagozkien artikulua dira, gehienbat.

Dagoeneko aipatu diren batzuk ahantzi gabe (Anguera 1987, etab.), interes berezia du gure arterako ere Verdoodt-en lanak: Hizkuntz protesta-mugimenduei eta berauekiko erantzun estataleki buruz ari da artikulua, batez ere arazoa bere alde juridikora mugatuz (Verdoodt 1987).

Normalizazioaren prozesua hainbat sektore sozial ezberdinetan aurkezten da: kultur bizitzan, oro har, literatur produkzioan, katalanerako itzulpenetan edo irakaskuntzan. Literatur aldizkariaren lekua ere deskribatzen da (Rendé/Cònsul 1987). Katalanetik beste hizkuntzetarako itzulpenak gogoratu ditugu, baina normalizazioak behar izaten dituen beste erdaretatik itzulpenek duten garrantzia aintzakotzat hartu izan da, gainera. A. Broch eta Rosenthal-en datuak elkarrekin irakurtzeak dita, kanpotik etxerako eta etxetik kanporako itzulpen-joanetorria batera ikusi ahal izateko (Rosenthal 1986, Broch 1987a, 1987b, Guardiola 1987). Aparteko itzulpen bereziagoren bati egin zaion kritika

ere gogora daiteke: Baudelaire, kasuan (Tricàs 1988). Interés handikoak izanik ere ezin gaitezke hemen datu horiek jasotzen has.

Hizkuntz normalizazio honetan itzulpen-mundua guztiz librea bada ere, irakasmunduarena boteretik askoz baldintzatuagoa ageri zaigu, eta *Revista de Catalunya* bezalako batek ezin zezakeen erabat baztertuta laga (agian Administrazioarena, horrentzat beste aldizkari egokiagoak egotean, utz zezakeen gisan). Irakasmunduko hizkuntz erabileraz, Valencia-ko Unibertsitate-Errektorearen eskutik aurkeztu da Estatu osorako ere munta handia duen hizkuntz auzi bat (ik. *Jakin* 41, 1986, 105-106): Konstituzio Espainoleko 3. artikulua ukeraren eta irakas politika linguistikoaren zerikusia, alegia (Lapiedra 1987). Arazo politiko eta juridiko horren ondoan, hizkuntzaren irakas-didaktikarenak ere erabili izan ditu aldizkariak (Viladot i Preses 1988).

Honelako sektore sozio-linguistikoekiko ardurarekin batera, hizkuntz politikaren oinarriena dago: alde batetik, politika orokorrarenak, berorren Zuzendari Nagusiak marrazten ditu (Moll 1987), eta bestetik, hizkuntzaren barne-arauden finkapenez sinadura otizial eta ez-ofizialen izenpean hitz egiten da: katalan estandarrerako detinizio-hurbilpen bat eskainiz (Marí 1987), hizkuntz-modu horrek komunikabideetan izan litzakeen katramilak astinduz (Moll i Gómez de la Tia 1987). Hain zuzen, komunikabideek normalizazioan duten pisuaz kezka bizia dago Herrialde Katalanetan, lehenik etxe-barnean jadanik bizi den arazo larri bezala, eta gero, Europa berritik datorkeen herronka arrisksu bezala ere (Gifreu 1987).

Izan ere, hizkuntzaren jatorrizko sorterrietako eta nazioarteko aukera edo galbideen, denen, arteko zerikusi hurbilaz katalanek kontzientzia argia erakutsi izan dute. Kasu honetan adibide gisa, IEC eta PEN aipa litezke. Lehenengoaren hizkuntz saila da katalanaren Akademia: Secció Filològica de l'Institut d'Estudis Catalans delakoa; PEN katalanaren egitekoa bestelakoa da: idazlego katalanaren nazioarteko presentzia. Aldizkariak, bataren etorkizunaz (Bolos 1988) eta besteren ihardunbideaz (Rendé i Masdeu 1986) eman ditu albisteak. Dena den, hizkuntzaren normalizazio-erakundeztapenaren egitekoak ez du oraindik sobera leku izan aldizkarian, momentuan momentuko gertakari kulturalak baino gutxiago, noski.

4.3.4. Mundu katalanetik, hizkuntzaz diharduten aldizkariak gogoz aukeratu dira haien aurkezpen interesatu bat egiteko: *Limits* eta *Llengua & Literatura* aurkezteko, esate baterako (Argenté 1987, Badia 1987). Gisa berean, badago arretarik literatur kritika eskaintzeko, bai horretarako dagoen “Revista dels Llibres” sailean, bai bestelako sailetan, obra solteak, autoreak, generoak, garaiak edo besterik gogoratuz (Blasco 1986, Boyé 1987, Cònsul 1988, Dolc 1988, Guillamon 1988, Iborra 1986, 1988, Mas i Vives 1986, Molas 1987, Oleza 1987, Rendé/Cònsul 1987, Romeu i Figueras 1987, Terry 1987, Triadú 1987, Tricàs 1988) Zalantzarik gabe, arte plastikoei toki nagusia eman ohi dien aldizkari honetan hizkuntza idatzi ederrak orrialde zabalena ditu.

Eta hizkuntzaren inguruko gertakari sozialei ere lekuri egin izan zaie: bilera, kongresu eta beste ospakuntzei, alegia. Eredugarriak direla esango nuke, abilak ezezik etikoak ere badirelako, Badiak, berak presidituriko Hizkuntza Katalanaren Nazioarteko II. Kongresuari oharrak eta kritika egitean azaltzen dituen irekitasun-askatasunak (Badia i Margarit 1986), gai beraz idatzitako besterik ahanzi gabe (Mascaró 1987).

4.4. *Revista de Catalunya-k*, bere lanean ez du egin oraindik Herrialde Katalanetan hizkuntzaren inguruan dauden lantalde edo banako baliozko guztien sintesi orekatu bat; urte t'erdiko bizitza laburra duelako ere bai. Sumatzen da, ahots kritiko gogorrenak ez direla oraindik hurbildu (sozio-linguistikako talderen bat, agian, edo Valènciako “blaverisme” deitua). Hala ere, aldizkari hau altxor bikaina izanen da berehala, Kataluniako hainbat norabide eta gorabehera kultural usnatu eta hurbileko sintesi argiak eskuetan izateko, eta, lerro hauetan erakutsi denak dioenaren arabera, hizkuntzarekikoak nola dabiltzan zelatatzeke.

5. ONDORIOBIDEZ

Honainoko lerro hauetan, Herrialde Katalanetako herrietan historian zehar hizkuntzak izan duen lekua gogoratu nahi izan dugu, edo hobeki: gaur eguneko historilari eta hizkuntzalarien lan batzuetan hizkuntzaren historia sozial hark duen lekua aipatu dugu, lehenik. Obra berezitu horien ondoan, beste moldetako argitalpenetan hizkuntzari eman zaion azter-tokia deskribatu dugu gero: *Avui* egunkariaren kasua azpimarratu dugu (nahiz eta beronen edukinen berriemate beste baterako geratu), politikari baten argitalpenak eta hizkuntz ardura azaldu ditugu, eta, azkenik, kultur aldizkari baten hizkuntzarekiko lan-bildumaren edukin-deskribapena eman da.

Orrialde hauen betekizuna bikoitza da: a) Euskaldun interesatua hizkuntza katalanaren historiara eta herri hartako egungo pentsamendura hurbiltzen laguntzea, eta b) Batez ere, hizkuntzaren normalizazio-unean gizarte hartan sumatzen eta formulatzen diren eritzien bilduma esanahitsu bat aurkeztea.

Avui-ren hamar-hamabi urtetako bizitzak, patxarazko irakurketa bat eskatzen du, esan ditugun arrazoiengatik; baina *Revista de Catalunya-rena* osokiago jasota geratzen da, epe laburrekoa izanik ere. Ferrer-en lanei buruzkoa, beronen liburuak ezagutzeko deia da, batipat. Oro har, hizkuntz gogoeta aberatsa da Katalanian argitalpen hauetan barruntatzen dena, hizkuntzalaritza eta literatur historiatiak edo kritikatik kanpora ere.

Gogoeta horren ezagumenduak eta azterketak, berez dute interes sozio-historiko bat; baina, gai honen kasuan, are interesgarriagoak bilakatzen dira, euskaldunok ere —lehenengoz gure historian— hizkuntzaren normalizazioa bilatzen dugunean. Normalizazio-gogoak, teoriak eta proiektuen formulazioak gizar-teari nola *esaten* zaizkion, edo/eta berorrek nola *esaten* dituen ikustea eredu-garri ere gerta zitekeela uste izan dugu.

Hemen ez da analisi arrazoitu bat egin, horren aurreko zerbait baizik: gertakari sozio-intelektual baten alde ezberdinak erakutsi. Aurkeztu dugun gidoi tematiko hau ikas-gidoi izan dadila nahi genuke, gure aldetik.

BIBLIOGRAFIA**1. Oinarrizko liburu orokorrak**

- BADIA i MARGARIT, Antoni Maria (1976): *La llengua. Vint-i-cinc anys d'estudis sobre la llengua i la literatura catalanes (1950-1975)*. Montserrat: Publicacions de l'Abadia.
- BADIA i MARGARIT, Antoni Maria (1981): *Gramàtica històrica catalana*. València: Tres i Quatre.
- BALCELLS, A. (1980-1981): *Historia dels Països Catalans*. Barcelona: Edhasa.
- COROMINES, Joan (1976): *El que s'ha de saber de la llengua catalana*. Palma de Mallorca: Editorial Moll.
- DUARTE i MONTSERRAT, Carles; MASSIP i BONET, M.^a Angels (1981): *Síntesi d'història de la llengua catalana*. Barcelona: Edicions de La Magrana.
- HINA, Horst (1986): *Castilla y Cataluña en el debate cultural (1714-1939). Historia de las relaciones ideológicas catalana-castellanas*. Barcelona: Ediciones Península.
- INTXAUSTI, Joseba (1978): "Abertzaletasuna eta hizkuntza Katalunian", in: *Jakin*, 1978, 7.zenb., 5-46.
- MARÍAS, Julián (1966): *Consideración de Cataluña*. Barcelona: Aymá. (1974⁴).
- NADAL, J. M.; PRATS, M. (1982): *Historia de la llengua catalana. 1. Dels inicis fins al segle XV*. Barcelona: Edicions 62.
- RIQUER, M. DE; COMAS, A. (1984-1987): *Historia de la Literatura Catalana*. Barcelona: Ariel (t. I-III: 1984⁴; t. IV-VI: 1985⁴; t. VII-VIII: 1986; t. IX-X: 1987).
- ROSSELL, Mercè (1977): *La Generalitat de Catalunya. II. La política cultural: El bilingüisme. L'Ensenyament. El patrimoni. La cultura popular*. Barcelona: Undarius.
- SANCHIS GUARNER, Manuel (1980): *Aproximació a la història de la llengua catalana*. Barcelona: Salvat.
- SERRAHIMA, Maurici (1967): *Realidad de Cataluña. Respuesta a Julián Marías*. Barcelona: Aymá.
- TORREALDAY, J. M. (1982): "Euskararen zapalkuntza (1936-1939)", in: *Jakin*, 24, 1982, 5-73.
- VILAR, Pierre (dir.) (1987): *Historia de Catalunya*. Barcelona: Edicions 62.

2. Ferrer i Gironès-en eta ingurukoenak

- AVUI (1985): "Català a l'exèrcit", in: *Avui*, 24-octubre-1985, 8. (Editorial).
- BURGUERA, Francesc de P. (1985): "La carta del senador Ferrer", in: *Avui*, 15-novembre-1985, 11.
- CREXELL, Joan (1985): "Crònica d'un odi continuat", in: *Avui*, 15-desembre-1985. [F. Ferrer-en *La persecució política de la Llengua Catalana-ri buruz*].

- FERRER i GIRONES, F. (1982): *Via Fora!* Girona: Editorial Gothia.
- FERRER i GIRONES, F. (1984): “Per un nou estil a Capitània General”, in: *Avui*, 11-desembre-1984, 9.
- FERRER i GIRONES, F. (1985a): “La glotofagia té ideologia?”, in *Serra d’Or*, XXVI, 1985, n. 293, 505-506.
- FERRER i GIRONES, F. (1985b): “La veritat sempre sura”, in: *Avui*, 1-novembre-1985, 10.
- FERRER i GIRONES, F. (1985c): “El senador contesta” (carta), in: *Avui*, 15-novembre-1985, 10.
- FERRER i GIRONES, F. (1985d): *La persecució política de la llengua catalana*. Barcelona: Edicions 62.
- FERRER i GIRONES, F. (1986a): “Els botiflers lingüístics”, in: *Avui*, 20-abril-1986, 12.
- FERRER i GIRONES, F. (1986b): *Catalunya light...? Els espanyols no són catalans*. Barcelona: El Llamp.
- J. P. M. (1985): “CiU, ERC i PSUC abonen que l’exèrcit respecti el català per llei”, in: *Avui*, 4-octubre-1985, 3.
- REDACCIÓ (1985a): “Gerra no veu oportú fer que l’exèrcit, per llei, respecti el català. Sense els vots del PSOE, Ferrer retira les enmenes”, in: *Avui*, 24-octubre-1985, 1 i 32.
- REDACCIÓ (1985b): “El govern socialista es recorda del català només per perseguir-lo. Carta del senador del grup socialista Francesc Ferrer a González”, in: *Avui*, 14-novembre-1985, 1.
- REDACCIÓ (1985c): “La persecució del català ha estat una constant de tots els règims. La impugnació de la llei de normalització fou un error històric”, in: *Avui*, 5-desembre-1985, 6. [F. Ferrer-en *La persecució política de la llengua catalana* liburua aurkeztean].
- SANMARTÍ, Josep M. (1985): “El Senat refusa la defensa del català en els estaments militar?”, in: *Avui*, 3-octubre-1985, 5.
- SANMARTÍ, Josep M. (1988): El BOE continuara diferenciant entre català, valència i balear”, in: *Avui*, 5-abril-1988, 9. [Resposta al senador Francesc Ferrer].
- SENDRA i NAVARRO, J. (1985): “L’obediència d’un senador independent”, in: *Avui*, 12-novembre-1985, 10.
- TORRES i ALMIRALL (1985): “Català a l’exèrcit, qüestió molt seguida”, in: *Avui*, 26-octubre-1985.
- VENDRELL, Jordi (1988): “Francesc Ferrer i Gironès”, in: *Avui*, 8-febrer-1988, 36.

3. *Revista de Catalunya*: hizkuntzarekikoak

- ANGUERA, Pere (1987): “La formació de la consciència nacional a Reus”, in: *Revista de Catalunya*, n. 4, Gener de 1987, 31-39.

- ARGENTE, Joan A. (1987): “«Limits»: Assaig de presentació duna nova revista catalana”, in: *Revista de Catalunya*, n. 6, Marc de 1987, 159-162.
- BADIA, Lola (1987): “A propòsit del primer número de l’anuari «Llengua & Literatura»”, in: *Revista de Catalunya*, n. 4, Gener de 1987, 164-166.
- BADIA i MARGARIT, Antoni M. (1986): “Cara i creu del Segon Congrés Internacional de la Llengua Catalana”, in: *Revista de Catalunya*, n. 3, Desembre de 1986, 169-175.
- BADIA i MARGARIT, Antoni M. (1987): “La lingüística i l’evolució general de la ciència”, in: *Revista de Catalunya*, n. 5, Febrer de 1987, 22-34.
- BLASCO, Ricardo (1986): “La cultura en llengua catalana al País Valencia durant la República i la guerra civil (apunts per a una caracterització)”, in: *Revista de Catalunya*, n. 2, Novembre de 1986, 160-174.
- BLASCO, Ricardo (1987): “El Segon Congrés Internacional d’Escriptors, als cinquanta anys”, in *Revista de Catalunya*, n. 8, Maig de 1987, 167-173.
- BOLOS, Oriol de (1988): “Present i futur de l’Institut d’Estudis Catalans”, in: *Revista de Catalunya*, n. 17, Marc de 1988, 33-44.
- BOYÉ, Carme (1987): “Evocació de Salvador Espriu”, in: *Revista de Catalunya*, n. 5, Febrer de 1987, 168-174.
- BROCH, Alex (1987): “La traducció als anys 80”, in: *Revista de Catalunya*, n. 12, Octubre de 1987, 166-171.
- BROCH, Alex (1987): “Una etapa oberta: sota el signe de la traducció”, in: *Revista de Catalunya*, n. 12, Octubre de 1987, 156-165.
- CANAL, Jordi; CASACUBERTA, Margarida (1987): “Jacint Verdaguer, un poeta al servei del catalanisme conservador”, in: *Revista de Catalunya*, n. 13, Novembre de 1987, 153-168.
- CAROD-ROVIRA, Josep-Lluís (1987): “Rovira i Virgili, la nació com a passió”, in: *Revista de Catalunya*, n. 4, Gener de 1987, 74-83.
- CÒNSUL, Isidor (1988): “La novel·la policíaca catalana (l’euforia present i la tenacitat d’antany)”, in: *Revista de Catalunya*, n. 15, Gener de 1988, 144-148.
- COROMINES, Joan (1987): “Entorn d’unes puntualitzacions sobre Verdaguer: carta oberta a Ernest Lluch”, in: *Revista de Catalunya*, n. 13, Novembre de 1987, 169.
- CULLA i CLARA, Joan B. (1986): “De Budapest a Dublín passant per Cristiània, o sobre alguns models internacionals del catalanisme”, in: *Revista de Catalunya*, n. 2, Novembre de 1986, 37-48.
- DOLC, Miquel (1988): “Constants en la poesia d’Agustí Bartra”, in: *Revista de Catalunya*, n. 16, Febrer de 1988, 143-153.
- DURAN, Manuel (1987a): “La vitalitat de la minoria hispana als EUA”, in: *Revista de Catalunya*, n. 5, Febrer de 1987, 103-110.
- DURAN, Manuel (1987b): “La presència dels catalans i l’interès per la cultura catalana”, in: *Revista de Catalunya*, n. 4, Gener de 1987, 99-100.
- ELLEGARD, Alvar (1987): “La llengua sueca: una especie en perill?”, in: *Revista de Catalunya*, n. 12, Octubre de 1987, 91-97.

- EPALZA, Mikel (1987): “Relacions dels Països Catalans amb el món musulmà”, in: *Revista de Catalunya*, n. 5, Febrer de 1987, 49-62.
- FOLCH, M. Dolors (1988): “1919-1949: Trenta anys de revolució literària a la Xina”, in: *Revista de Catalunya*, n. 15, Gener de 1988, 79-94.
- FORNÉS, Lluís (1987): “XI Universitat Occitana d’Estiu”, in: *Revista de Catalunya*, n. 14, Desembre de 1987, 87-90.
- GIFREU, Josep (1987): “Els *mass media* en català davant la circulació europea de la comunicació”, in: *Revista de Catalunya*, n. 4, Gener de 1987, 9-27.
- GUARDIOLA, Carles-Jordi (1987): “Traduït de l’alemany”, in: *Revista de Catalunya*, n. 5, Febrer de 1987, 175-177.
- GUILLAMON, Julia (1988): “L’escriptor i el seu altre: maduresa i joventut de Xavier Benguerel”, in: *Revista de Catalunya*, n. 15, Gener de 1988, 125-137.
- IBORRA, Josep (1986): “La novel·la valenciana contemporània”, in: *Revista de Catalunya*, n. 3, Desembre de 1986, 145-157.
- IBORRA, Josep (1988): “La influència de Joan Fuster en la Literatura Catalana”, in: *Revista de Catalunya*, n. 17, Marc de 1988, 126-139.
- LAPIEDRA CIVERA, Ramón (1987): “L’acord i la sentència”, in: *Revista de Catalunya*, n. 4, Gener de 1987, 3-5.
- LLOMPART, Josep M. (1988): “Un quart de segle [de l’Obra Cultural Balear]”, in: *Revista de Catalunya*, n. 16, Febrer de 1988, 3-6.
- LLUCH, Ernest (1987): “Puntualitzacions entorn de mossèn Cinto”, in: *Revista de Catalunya*, n. 8, Maig de 1987, 156.
- MARCET i JUNCOSA, Alicia (1987): “Catalanitat i francesització en J.-S. Pons: una lectura de la seva tesis doctoral”, in: *Revista de Catalunya*, n. 9, Juny de 1987, 157.
- MARÍ, Isidor (1987): “Cap a la consolidació del català estàndard”, in: *Revista de Catalunya*, n. 8, Maig de 1987, 9-19.
- MASCARÓ, Joan (1987): “El futur del català i el Segon Congrés Internacional de la Llengua Catalana”, in: *Revista de Catalunya*, n. 11, Setembre de 1987, 181-185.
- MAS i VIVES, Joan (1986): “L’estat actual de la literatura catalana a Mallorca”, in: *Revista de Catalunya*, n. 1, Octubre de 1986, 151-165.
- MIRA, Joan F. (1987): “Sobre parlar i ser: identitats, llengües, nacions”, in: *Revista de Catalunya*, n. 5, Febrer de 1987, 37-48.
- MOLAS, Joaquim (1987): Homenatge a J. V. Foix”, in: *Revista de Catalunya*, n. 5, Febrer de 1987, 3-7.
- MOLL, Aina (1987): “El nostre procés de normalització lingüística”, in: *Revista de Catalunya*, n. 13, Novembre de 1987, 3-6.
- MOLL i GOMEZ DE LA TIA, Juli (1987): “La llengua catalana, estàndards i mitjans de comunicació”, in: *Revista de Catalunya*, n. 4, Gener de 1987, 61-73.
- MUNDÓ, Anscari M. (1986): “El pes de l’europeisme en la formació nacional de Catalunya”, in: *Revista de Catalunya*, n. 3, Desembre de 1986, 37-50.

- NIJS, Bob de (1987): "El procés de normalització lingüística de Flandes", in: *Revista de Catalunya*, n. 10, Julio-Agost de 1987, 87-106.
- OLEZA, Joan (1987): "Literatura i País Valencia: una meditació", in: *Revista de Catalunya*, n. 5, Febrer de 1987, 155-167.
- PETSCHEN, Santiago (1987a): "Bisbes i castellanització a Catalunya als segles XIX i XX", in: *Revista de Catalunya*, n. 10, Julio-Agost de 1987, 56-68.
- PETSCHEN, Santiago (1987b): "El nacionalisme del Jura: entre la realització i la frustració", in: *Revista de Catalunya*, n. 14, Desembre de 1987, 77-86.
- PLOURDE, Michel (1987): "Situació actual del problema nacional al Quebec", in: *Revista de Catalunya*, n. 11, Setembre de 1987, 71-84.
- RENDÉ, J.; CÓNSUL, I. (1987): "Aproximació a les revistes literàries catalanes: un present optimista", in: *Revista de Catalunya*, n. 7, Abril de 1987, 167-173.
- RENDÉ i MASDEU, Joan (1986): "La reunió internacional del PEN Club a Hamburg", in: *Revista de Catalunya*, n. 1, Octubre de 1986, 166-169.
- ROMEU i FIGUERAS, Josep (1987): "Unes notes sobre la versificació de la poesia catalana contemporània", in: *Revista de Catalunya*, n. 9, Juny de 1987, 143-156.
- ROSENTHAL, David H. (1986): "Les traduccions del català a l'anglès", in: *Revista de Catalunya*, n. 2, Novembre de 1986, 175-178.
- ROSSELLO i VERGER, Vicenc (1987): "La divisió territorial del País Valencia", in: *Revista de Catalunya*, n. 4, Gener de 1987, 40-60.
- ROY, Joaquim (1988): "El present i el futur dels centres catalanes a America", in: *Revista de Catalunya*, n. 17, Marc de 1988, 79-84.
- SIGUAN, Miquel (1988): "Català i Occità: Una historia paral·lela", in: *Revista de Catalunya*, n. 17, Marc de 1988, 73-76.
- SIMBOR ROIG, V. (1987): "El predomini de la tradició en front de l'avantguarda en la literatura catalana del País Valencia des del romanticisme fins a la generació dels seixanta", in: *Revista de Catalunya*, n. 6, Marc de 1987, 137-151.
- SOLA i CAMPS, Josep M. (1987): "Jacint Verdaguer, Sebastià Juan Arbó i Ernest Lluch", in: *Revista de Catalunya*, n. 13, Novembre de 1987, 170-176.
- SOLÉ, Carlota (1987): "Socialització lingüística i integració socio-cultural de la migració interior", in: *Revista de Catalunya*, n. 4, Gener de 1987, 19-27.
- STEGMANN, Til (1987): "Graus d'atractivitat d'una llengua o cultura", in: *Revista de Catalunya*, n. 9, Juny de 1987, 81-97.
- TAVANI, Giuseppe (1988): "Català de l'Alguer i català estàndard", in: *Revista de Catalunya*, n. 17, Marc de 1988, 45-52.
- TERRY, Arthur (1987): "El volum VII de la «Historia de la Literatura Catalana»", in: *Revista de Catalunya*, n. 6, Marc de 1987, 153-157.
- TRIADU, Joan (1987): "«Poetes catalans moderns» de Jaume Bofill i Ferro", in: *Revista de Catalunya*, n. 10, Julio-Agost 1987, 160-163.

- TRICÀS, Mercè (1988): “Llegir, interpretar, traduir: La traducció de *Les fleurs du mal de Bandelaire* per Xavier Benguerel”, in: *Revista de Catalunya*, n. 15, Gener de 1988, 138-143.
- VERDOODT, Albert (1987): “Els moviments de protesta lingüística i les respostes estatals”, in: *Revista de Catalunya*, n. 12, Octubre de 1987, 98-103.
- VILADOT, i PRESES, M. Angels (1988): “L’individu, part fonamental en els processos d’aprenentatge i adquisició d’una segona llengua”, in: *Revista de Catalunya*, n. 17, Marc de 1988, 9-22.
- WAGENSBERGER, Jorge (1986): “L’entropia del llenguatge”, in: *Revista de Catalunya*, n. 3, Desembre de 1986, 24-34.